



## FUNTZIONAMENDU ARAUAK Ospitalizazioko Unitatea –NEUROLOGIA

### Dei egiteko beharrea bazea, ERABILI GELAKO TXIRRINA

#### MEDIKUAREN BISITA / FAMILIARTEKOENTZAKO INFORMAZIOA

- Eskatu laguntza behar duzun guztietan.
- Egunero pijama edo ohe-atorra jasoko duzu. Norberaren garbitasunerako, bainugela bat dago logelan, dutxa eta guzti.
- Geletako komunak pazienteentzat dira. Laguntzaileentzako komunak igogailuak dauden tokian daude.
- Lagundu ospitalean ISILTASUNARI eusten.
- Pazienteentzako segurtasuna dela medio, ospitaleratzeko unitateetan ezin dira sartu landare naturalak edota artifizialak (plastiko, kartoi eta abarrezkoak), lurrunak edo lurgabeak.

#### EBAKUNTZA EGIN BEHAR IZANEZ GERO, JAKIN BEHARREKOA



- Interbentzioak irauten duen bitartean gelan edo egongelan egon zaitezke.
- Interbentzio ondoko informazioa Unitatean ematen da.
- Anestesia ondoko bizkorketa, ABUn egiten da, operazio-gelan.

#### MEDIKUAREN IKUSTALDIA ETA FAMILARTEKOENTZAKO INFORMAZIOA



- Egunero 9:00etatik 13.00etara.
- Pazientearen eboluzioari buruzko informazioa bisita egin bezain laster ematen da.

#### OTORDUAK



08:15 - 08:45 Gosaria  
12:45.- 13:15 Bazkaria  
16:45 - 17:15 Askaria  
19:45 - 20:15 Afaria

#### BISITAK

- 15:00etatik 22:00etara- Astegunetan
  - 08:00etatik 22:00etara – Larunbat eta igandeetan
  - **Pazienteko 2 pertsona, gehienez.**
- Nahi izanez gero, senide bat zurekin 24 orduz egon daiteke.

#### BESTE GAUZA JAKINGARRI BATZUK



Kerik gabeko erakunde batean zaude. Hemen ezin da tabakorik erre edota zigarro elektronikorik erabili (baita aparkaleku, lorategi eta kaleetan ere).



#### LAGUNTZA ETA HEZKUNTZA SANITARIOA

Memento jakin batean beharrezkoa izango da familiarrekoren baten presentzia alta ondoko zainketak nola egin ikasten laguntzeko.



**Ingresuko egiaztagiria** (enpresarako, oheburuko medikuarentzat edo familiarrekorentzat), behe solairuan, sarreran, dagoen Harrerako Unitatean jaso daiteke.



#### SANTIAGO OSPITALEKO TELEFONO ZENBAKIA: 945-007600

8:00etatik 22:00etara, logelan deiak jaso daitezke, telefono honetara deituz: 945000887. Kanpora deitzeko, logelatik, telebistako txartelaren bidez ere deitu dezakezu.



Telebista-zerbitzua ez da ospitalearen berezko zerbitzua. Erabiltzeko, txip-txartela eta entzungailuak behar dira; atarian duzu tresna horiek lortzeko makina (dena den, zure entzungailuak ere ekar ditzakezu, nahi izanez gero). Txartelak duen diru-kopurua ez da itzuliko, baina ez dauka iraungintze-datarik, hortaz berriro erabil daiteke. Matxuraren bat gertatu edo behar izanez gero, deitu 1422 edo 636 46 59 37 telefonora. Telebista - eta telefono-ekipoak sistema berean integratuta daudenez, ezin dira telebistak deskonektatu, telefono-zerbitzua ere automatikoki deskonektatuko litzateke-e.



#### KAFETEGIA Ordutegia: 8:00etatik 22:00etara.

Ate nagusiaren aurrean dago.

Itxarongetan kafeak eta freskagarriak ematen dituen makina batzuk daude.



**ALTA hartzen duzun egunean**, alta txostena jasotzen duzun bezain laster, gela utzi beharko duzu eguerdiko **ordu biak** baino lehen.

#### ERLIJIO-ZERBITZUA



- Beheko solairuan -B Pabiloian KAPERA bat dago
- Mezen ordutegia: Igande eta jai egunetan: 11:30ean; lan egunetan: 20:00etan.
- Apaiza eguneko 24 orduetan.
- Beste erlijio batzuetako pazienteek eta senideek laguntza eskatu diezaiokete euren arimako maisuari..

#### PAZIENTEAK ETA ERABILTZAILEAK ATENDITZEKO ZERBITZUA (PEAZ) beheko solairuan dago.

Udako ordutegia: 9:00 etatik 14:00 etara (astelehenetik ostegunera)

Neguko ordutegia: 9:00 etatik 14:00 etara eta 15:30 etatik 17:00 etara (astelehenetik ostegunera)

9:00 etatik 14:00 etara (ostiraletan).